

Gure herrian euskararekin gertatzen ari dena,  
gure herrian bakarrik ari al da gertatzen?

Seguru asko ez, udalerrri euskaldun askotan  
antzeko joerak ari baitira azaltzen.

Eta zergatik, ba?

# GARRANTZITSUA

izango da zuk esaten duzuna ere

## EUSKARAREN ARNASGUNEAK. TAILERRA

Galderei erantzunak emateko  
asmoz, herritarrentzako  
formazio tailer irekia antolatu  
dugu Oiartzungo Udalak,  
TturTtur Euskaltzaleon  
Bilguneak eta UEMAK  
elkarlanean. Guztion iritziek  
eta ekarpenek dute  
garrantzia, aiez ale uzta  
oparoa biltzea baita  
asmoa. Zuk ere izango  
dituzu bizipenak,  
usteak edo kexak  
kontatzeko. Orain da ordua.



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA



OIARTZUNGO  
UDALA



# GONBIDAPENA

zu ere bertan izatea nahi dugulako

Leku bateko hizkuntza  
nagusia euskara denean, toki hori  
euskaldunontzat arnasmunea dela esaten da.

Baina hori argi izanda ere, hamaika galdera sortzen zaizkigu:  
zergatik entzuten da erdara haurren parkean? Herritar berrien eragina  
zenbatekoa izan da benetan? Euskarak ustez prestigioa irabaztea eta, aldi  
berean, etxeko erabilera jaiste normala al da? Zer eskatu behar zaie  
politikariei? Eta euskaldunon jarrerak nola ahaldu daitezke?

## PARTAIDEAK

Herritar guztiei irekia dago  
tailerra: herriko eragileak,  
gurasoak, norbanako interesdunak,  
ostalariak, gazteak, enpresariak,  
ikasleak...

## HELBURUA

Udalerrri euskaldunetako joera  
linguistikoei buruzko hausnarketa  
egiteko tarte hartu, eta, hizkuntzaren  
erabileran eragina duten askotariko  
faktoreak aztertzea. Elkarrekin  
ateratako ondorioekin etorkizunera  
begirako jarrerak lantzea da helburua.

## NOIZ - NON

Martxoak 17, osteguna  
Udaletxeko pleno aretoan  
18:00etatik 20:00etara

ETORRI BELDURRIK  
GABE!